



|  |           |                |                |
|--|-----------|----------------|----------------|
| <b>AKTA</b><br><b>SAN PEDRO JAIK 2012</b><br><b>1. FASEA</b><br><b>1. BILERA: PROGRAMAZIOA</b> |           |                |                |
| DATA: 2012.03.13<br>TOKIA: Kultur Etxea  | BILERA: 1 | HASIERA: 18.30 | BUKAERA: 21.15 |

|   |
|---|
| <b>DEITUAK:</b> <ul style="list-style-type: none"><li>- San Pedro jaien diseinuan parte-hartu nahiko lukeen herritar oro.</li><li>- Herriko talde eta organismoa kultural ezberdinak (konbokatoria zuzena).</li></ul> |
| <b>BERTARATUAK:</b> 25 pertsona (bileraren amaieran 18).  |

#### **GAI ORDENA:**

1. Aurkezpena eta ongi etorria: Parte-hartze saileko teknikari eta zinegotzia, eta Gazteria, Festak eta Kirola saileko zinegotzi eta teknikaria.
2. Diseinatutako parte-hartze prozesu osoaren aurkezpena: bi faseak, lau bilera faseko, bilera tematikoak.
3. Gaurko bileran jorratuko diren gaien aurkezpena eta proposamen bilketa (batez ere puntu honen dinamizazioaz eta koordinazioaz arduratuko da Parte-hartze Saila):
  - a. San Pedro jaiak 2012: egunak: ekainak 28, 29, 30 eta uztailak 1. Bakoitzari eman ahal zaion zentzu berezia.
  - b. Txupinazoa.
  - c. Omenaldia.
  - d. Zezenak.
  - e. Su artifizialak.
  - f. Kirol jarduera ezberdinak (pilota txapelketak,...).
  - g. Haur danborrada – Danborrada.
4. Gai konkretu hauez gain, herriko taldeek izan ditzaketen aportazioak jaso: haiek jaietan zerbait egiteko prest leudeken galdetu,... Batez ere talde ezberdinak ekintza bereziak burutzeraz animatzea da puntu honen helburua.
5. Sorgin jaiak – San Pedro jaiak: aurtengo egoera.
6. Bestelako aportazioak.
7. Hurrengo bilerarako gonbita, eta amaiera.

## **BILERAREN HASIERA ETA AURKEZPENA:**

Bileraren hasiera eta aurkezpena aurrez planifikatu gisara egin dira. Jaietako aurrekontuaren inguruko datuak, diru-laguntzen inguruko informazioa eta lehengo urteko jai egitarauaren nondik-norakoak aurkeztu dira.

Ez da galderarik izan bileraren lehen zati honetan, eta parte-hartze prozesua martxan jarri da. Lehenik, bakoitzari bere ideiak eta proposamenak bakarka lantzeko eskatu zaio. Ostean, zenbakien bidez bost talde txiki osatu dira, eta proposamen guztiak beranduxeago talde txikiak komunean jarri eta bildu dira.

## **BILERATIK JASOTAKO PROPOSAMENAK:**

|                         |   |
|-------------------------|---|
| <b>TXUPINAZOA</b>       | <ul style="list-style-type: none"><li>- Ekainaren 28 arratsaldean egin dadila. Ambiente gehiago legoke horrela. Adibidez, Sorgin Dantzaren iritsierarekin batera.</li><li>- Txupinazo herritar BATERATU bat (Sorgin Jaiak – San Pedro jaiak). Herriko talde ezberdinek osatutako komisio batek bota beharko luke.</li><li>- Txupinazoa 12.00etan mantendu.</li><li>- Pertsona bakarrak bota beharrean, talde batek bota dezala.</li><li>- Urte bakoitzean omendutako pertsonak-taldeak bota dezala txupinazoa.</li><li>- Txupinazoa girotu egin beharko litzateke, ambiente hobea sortu dadin.</li></ul>  |
| <b>OMENALDIA</b>        | <ul style="list-style-type: none"><li>- Beste urte batzuetan 29an, San Pedro egunean egin ohi zen. Horrela mantentzea.</li><li>- Omenaldia herriko jaietan ez egitea; kutsi instituzionalegia du, eta tradizioekin ez dago zertan jarraitu.</li><li>- Herriari ekarpenen bat egin diotenak omentzeko momentua beharko luke.</li><li>- Herri-bozketa bidez hautatzea omendua, sare sozialak erabiliaz, adibidez.</li><li>- Ekitaldi itxi bat bezala ikusten da; publikoagoa beharko luke.</li><li>- Omenaldirako proposamena: Lasarte-Oriako TXOSNEN mugimendua: herriko benetazko jai parte-hartzaileak bizirik mantendu dituztelako, eta urte askotan asko sufritu behar izan dutelako. Inongo konplexurik gabe egin beharko litzateken zerbait da hau, ziklo bat isteko bide.</li></ul> |
| <b>KIROL EKITALDIAK</b> | <p><b>HERRI KIROLAK:</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Igandera, uztailaren 1era pasatzea.</li><li>- Kirol arloari dagokionean, herriko taldeek ere nolabaitean parte-hartu beharko lukete. Adibidez, kuadrilen arteko desafio bat, auzoen arteko pike bat,...</li><li>- Egun bateko txapelketa bat antolatu adibidez: futbola,</li></ul>   |

|   |  |
|---|--|
|   | <p>herri kirolak,...</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Talde mixtoen parte-hartzea sustatu beharko litzateke.</li> <li>- 10-15 adin tarteko gazteentzat ez dago ezer. Haiei zuzendutako txapelketatxo bat antolatzea.</li> <li>- Herriko kirol taldeek jaietan parte-hartzea, haien kirolaren erakusketa batekin,... Ostadar Rugby taldeak asmoa azaldu du.</li> </ul> <p><b>PILOTA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Intza pilota elkarteak antolatu izan ohi duen ekitaldia da (2011. urtean ekainaren 2an, igandea).</li> </ul>  |
| <b>ZEZENAK</b>                            | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zuzenean kendu egin beharko lirateke.</li> <li>- Gazteentzako egunez 2 ekitaldi eta helduentzat goizez beste 2 beharrian, bana egitea: lehen egunean, ekainaren 28an arratsaldez haurrentzat, eta hirugarren egunean, ekainaren 30ean (larunbata) goizez helduentzat.</li> <li>- Sokamuturra egitea Okendo plazan.</li> <li>- Sokamuturra egitea Andatza plazan.</li> </ul>   |
| <b>GOITIBEHERRAK<br/>(SORGIN JAIK)</b>    | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Segurtasun aldetik hobeto kontrolatu beharko lirateke.</li> <li>- Publizitate gehiago egin beharko litzateke. Edo indar gehiago eman ekitaldiari, edo kendu.</li> </ul>   |
| <b>HELDUEN<br/>DANBORRADA</b>             | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Herriko talde baten esku dagoen ekitaldia da. Haiek ekainaren 28an (lehen egunean) gaueko 23.00etan izatea proposatu dute.</li> <li>- Danborrada luzeagoa izan dadila, herriko beste puntu batzuetaraino eludas.</li> <li>- Kantinera mixtoak, programako argazkia matxista,...</li> </ul>  |
| <b>HAUR<br/>DANBORRADA</b>                | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Azken urteetan udaletxeak antolatu izan ohi duen ekitaldia. Lehenago guraso talde bat arduratzen zen.</li> <li>- 120 bat haur ateratzen dira, Gure Ametsako erabiltzaileez gain.</li> <li>- Danborrada informalago bat sustatu beharko litzateke, haur danborradaren baitan ambiente hobea sortzeko (Sorgin Jaieen baitan egin denaren antzekoa, adibidez).</li> <li>- Haur danborradan trajerik ez erabiltzea. Horren ordez, haurrak baserritarrez jantzita atera daitezela.</li> <li>- Guraso askok gustoko dute trajea, kexatu egingo lirateke.</li> <li>- Traje informalago batzuk egitea: tailer batzuk egitea adibidez haur danborradan parte-hartuko duten haurrekin. Honetarako Ttakun-ekin, gurasoekin,... kontaktatu ahalko litzateke.</li> <li>- Haur danborrada dinamizatuko duen talde bat sortzea (orain guraso talde batek egunean bertan soilik laguntzen du).</li> </ul> |
| <b>SU ARTIFIZIALAK<br/>– ZEZEN SUZKOA</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Suak botatzeko lekua aldatu egin beharko litzateke.</li> <li>- Hiru proposamen: hipodromoa, Askatasunaren parkea,</li> </ul>  |

|   |   |
|---|---|
|   | <p>Mitxelín Ilko zonaldea.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Kendu egin beharko lirateke.</li> <li>- Herriari onura dakarkio hala ere: bokatak, kafeak, helatuak,...</li> <li>- Andoain, Usurbil eta Lasarte-Oriako jaiak jarraian direla kontutan hartuaz, hiru herriek su artifizialak ekartzeko baliabideak elkartu, eta gastua murriztea egoki litzateke.</li> </ul>   |
| <p><b>BESTELAKOAK</b></p>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekitaldi guztiak herriak ikusle moduan parte-hartu dezan diseinatzen dira. Kontsumo kulturaren kontrako irizpideak aplikatu beharko lirateke, eta ekintza gehienak ahalik eta parte-hartzaileen izan daitezzen bilatu.</li> <li>- <b>HAURRAK: 10-15 adin tartea ez du inolako aukerarik, ez dago ezer haientzat. Hau indartzea (osteguneko bilerako gaia).</b></li> <li>- Zezenak egiten diren ordu tartetan beste alternatiba batzuk planteatzea: rave party bat, txokolatada bat, baratzuri zopa jan bat,...</li> <li>- Jaiak orain artean oso pobreak izan dira: dagoena mantendu eta gehiago egin beharko litzateke.</li> <li>- Lehiaketa gastronomiko baten antolaketa: patata tortila lehiaketa, adibidez.</li> <li>- K/ Nagusia jaiak ospatuko diren lau egunetan zehar itxita egotea.</li> <li>- Herriko elkarte ezberdinek material berberak erabiliko dituzte jaietan. Denak koordinatuta, material hau alokatzeko, lortzeko,... gastuak murrizten saiatzea.</li> <li>- <b>MUSIKA: herriko kaleetan zehar txaranga egunero egon dadila, eta tabernaz taberna beharrez, kaleetatik zehar ibili dadila.</b></li> <li>- <b>MUSIKA: txaranga modernizatzea: kantu modernoagoak jo ditzaketen taldeekin kontaktatzea, adibidez.</b></li> <li>- Herritarrak jaietan gehiago inplikatu daitezten, jai-egunetan mozorrotzea (beste herri batzuetako ereduari jarraiki: Ordizia, Oñati,...). Edo auzoka gai bat zehaztea, identitate hori markatzeko.</li> <li>- Blusen erabilera sustatzeko, herrian benetan errotuta dagoen zerbait da eta.</li> <li>- Konpartsak sustatzea herrian.</li> </ul> |
| <p><b>BESTE BILERA BATZUETAN IRTENDA KO PROGRAMAZIOARI DAGOZKION GAI AK</b></p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Herriko jaien aurrekontua zerbait murriztu eta auzoetako jai-egunetarako garrantzia gehiago eman beharko litzateke (PROGRAMAZIOA).</li> </ul>  |